Noaua!!

100. aleko gehigarria

Berri

Erreportaia



Porrusalda

Pil-pilean

Beste 100 baietz!

EUSKAL PRESO GUZTIAK
EUSKAL HERRIRA!

Usurbilgo Udala

HERRIAN ETA UDAL-ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ BIZITZEKO AHALEGINAK EGITEN DIHARDUGU

EKIN EUSKARARI

Zorionak Noaua! hamaboskariari orain arteko lanarengatik

Beste 100 baietz!

USURBILGO UDALA - KULTURA BATZORDEA

Noaua!! HAMABOSKARIA

Argitaratzailea
Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail:noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
http://www.topagunea.com/noaua/

Kazetarien koordinatzailea
Josu Aranberri

Kazetariak
Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea
Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea
Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak
Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa
Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:
Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua
Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa
Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika
Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa
Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria
Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

***Noaua!* Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan**

Beste 100 baietz!

Zenbait usurbildarrek gehigarri hau hartzerako, besteak ***Noaua!*** besterik agertzen ez den gehigarri hau ikusteaz nazkatuta egongo dira. Ba du horrek arrazoi bat. 100. alea azaroaren 10ean aterako bada ere, guk aurrea hartu eta azaroaren 4an izango den "Beste 100 baietz!" egun osoko festarako gehigarri mardul hau kaleratu nahi izan dugu. Bertara gerturatzen denak 100.alea etxera iritsi baino lehen eskua artean ibilia izango du gehigarri hau, besteok 100.alearen babesean jasoa izango duzue.

Herrian gertatutakoa hamabostean behin zuenganatzen saiatu izan gara orain arte, eta horrela jarraituko dugu aurrerantzean ere, baina oraingo honetan etxe barrura begiradatxo bat botatzea ere bidezkoa iruditu zaigu. Apustu egingo genuke zuetako askok aldizkaria nola egiten den, zenbat jende mugitzen duen ***Noaua!*** bezalako elkarte batek eta gehigarri honetan irakurri ahal izango dituzuen beste hainbat gauza ez dituzuela jakingo. Bada hementxe duzue aukera, publizitate tartean zer irakurria aurkituko duzue.

Hemen behintzat beste baterako utzi ditugu udaleko kontuak, baita kirol gaiak ere. Hikamikaren tarterik ere ez duzue aurkituko eta azken bi asteetan gertatutakoaren berri jakin nahi baduzue 100. aleruntz bideratu beharko dituzue begiak, eta ez gehigarri honetara.

36 orrialde dituzue esku artean, jenero pottoloa dudarik gabe. Orain arte egin ditugu gehigarriekin alderatuz, behintzat, marka guztiak apurtu ditugu. Ez bakarrik orrialde kopuruan, baita berau sortzeko izan dugun denboran ere. Izan ere, astebeteko epea izan dugu horretarako, eta gure betiko martxatik aldenduta aztoratu xamar ibili gara guztiok. Saiatu faltagatik behintzat ez da izango.

100 ale kaleratu ditugu, ez da marka makala. Zenbaki honetara iritsiagatik, ordea, ez da ***Noaua***!ren soka etengo. Hemendik aurrera ere zuen postontzietan izango baita herriko aldizkaria. "Beste 100 baietz"... erronka zaila jarri diogu gure aldizkariari, baina orain arteko martxa ikusita zenbaki hori oso urrun ikusten dugunik ezin esan; laster jango diogu bidea kopuru horri ere.

Asko eta asko dira 100 ale hauetan ***Noaua!*** aldizkarian nahiz elkartean bere laguntzatxoa eman dutenak. Hori bai, denok egindakoa gehigarri honetan jasotzea ezinezkoa egin zaigu. Izen ugari ikusi ahal izango dituzu datozen orrialdeetan, baina zuen bultzatxoa emanda ere bertan agertzen ez bazarete ez gaizki hartu. Denok duzue leku bat ***Noaua!***ren historian. Ea ba orain arte eman duzuen laguntza horren bultzada sentitzen dugun aurrerantzean ere. Zorionak ***Noaua!*** eta urteaskoan!

Erredakzio kontseilua



Eustakio Arrojeria

Elhuyar-eko zuzendaria

"Alabaina, onurak onura, arriskuak arrisku, beste 100 baietz!"

Zein dira Noaua!ri ikusten dizkiozun alde onak?

Noaua! bezalako herri-aldizkari baten onurak era askotakoak eta ugariak badira ere, lau nabarmendu nahi nituzke:

1.- Euskara ikasten ari denarentzat material osagarri aproposa izatea.

2.- Euskaldun alfabetatugabeak ere irakurtzeko modukoa izatea. Hau da, euskararen normalizazioaren aldeko tresna izatea.

3.- Herriko eta herritarren berri izateko egokia izatea.

4.- Herritarrok gure iritziak plazaratzeko aukera eskaintzea.

Zein dira Noaua!ri ikusten dizkiozun alde txarrak?

Alderdi negatiboak baino arriskuak dira horrelako aldizkari bati ikusten dizkiodanak:

1.- Herritarren iritzia plazaratzeko tresna izan beharrean, elkar erasotzeko tresna bilakatzea.

2.- Usurbil eta usurbildarron kontuetara mugatzeak badu bere xarma, baina baita arriskua eta gabezia ere: esamesetan erortzea eta interes orokorreko gaiak ez tratatzea.

3.- Euskaraz komunikatzen den aldizkaria izanik, herriko erdal komunitatea kanpo uztekoarena.

Zein dira Noaua!ri ikusten dizkiozun alde onak?

Noaua! herri prentsa edo lekuko prentsa deitu denaren ildotik jaio eta hazi da eta funtzio garrantzizkoak betetzen ditu. Batetik, euskararen normalizazio tresna garrantzizkoa da, euskaraz irakurtzen ez dutenei bultzatuz, ez dakitenei ikasteko beste motibo bat gehiago emanez, kolaboratzaile eta iritziemaileak trebatuz, eta abar. Bestetik, komunikazio eta ezagutza tresna indartsua da, eta hori ere inportantea da herri batean. Noaua! dagoenetik Usurbilen bizi gehiago dagoela dirudi. Kanpoan bizi garen herritarrei, gainera, gure jaioterriarekiko lotura mantentzen laguntzen digu.

Zein dira Noaua!ri ikusten dizkiozun alde txarrak?

Lanean ari dena jabetzen da inor baino hobeto zertara ez den ondo iristen. Alde horretatik, aholku handirik ez diot inori emango. Baina denbora ez da gelditzen, eta Noaua! proiektuak asmatu behar du garai berriei eten gabe egokitzen. Zer izan behar du datorren urtean edo bi urte barru? Herri prentsa guztiak bezala, Noaua!-k ere aldatu egin behar du, ingurua etengabe aldatzen ari da eta. Galdera hau da: bai euskararen normalizazio helburua eta bai komunikazio helburua lortzeko bidean zein formula erabili daitezke eta zein da koste-efikazia emaitza onena eskaintzen duena? Gaur duen hamaboskari formato berean mantendu behar da? Ala beste formato eta aldizkotasun batera pasatzea litzateke hobeto? Zer estimatuko luke herritarrak? Galdera asko egin ditudala? Erantzun ezberdinak hor daude: Arrasatekoa, Lasartekoa eta Hernanikoa. Animo.



Pello Zubiria

Argia astekariko zuzendaria

"Noaua! dagoenetik Usurbilen bizi gehiago dagoela dirudi"

Bazkide kopurua



Bestelakoak

☞ ***Noaua!*** aldizkariaren lehen alea 1996ko ekainaren 28an argitaratu bazen ere, urte bereko maiatzean, Sagardo Egunean hain zuzen ere, 0.alea kalean zen dagoeneko. Bertan, hamabostean behin etxean jasotzen duzun aldizkari honen proiektuaren berri ematen zen besteak beste.

☞ 1996. urtean 10 ale kaleratu ziren eta Noaua! Kultur Elkartearen aurrekontua lau milioi pezeta ingurukoa izan zen. 2000. urte honetan, ordea, bestelakoa da aldizkariaren nahiz aurrekontuaren itxura. 23 ale kaleratzeaz gain, aurrekontua hamar milioi pezeta ingurura gerturatuko da.

☞ Zuen etxeetara iritsi diren 99 aleetako orrialde kopurua batu ondoren zenbaki hauek atera ditugu: ***Noaua!***k guztira 2486 orrialde kaleratu ditu. Hauetatik 204 orrialde gehigarriak egiteko erabili dira, eta 1997ko ekainaren 1eko uholdeen inguruko argazkiak osatu zuten lehen gehigarria.

☞ 1999ko ekainaren 14ko data ere historiarako geldituko da. Aurreko egunean izan ziren udal hauteskundeetako herriko emaitzen berri ematen zuen ale berezia irakurleen eskura zen hauek esnatzerako. Lau orrialdetan emaitzen berri zehatza jaso ahal izan zuten usurbildarrek.

☞ 80. aletik aurrera ***Noaua!*** koloreztatuta iristen da zuen etxeetara. Aldizkaria erakargarriagoa egin nahian lehen eta azken bi orrialdeak eta gabonetako gehigarria kolore bizi-biziekin irten zen inprentatik. Noski, emaitza ikusita azken 20 aleetan ere kolorerik ez da falta izan.

☞ Asko eta asko izan dira 99 ale hauetan gure aldizkarian publizitatea jarri izan dutenak. Guztira 170 izan dira ***Noaua!***k izan dituen bezeroak. Dendek, tabernek, elkarteek, akademiek, ikastolak, enpresek... guztiek dute 100. alera iritsi izanaren "errua". Aurrerantzean ere ez dugu gutxiago espero.

EA
eusko alkartasuna

Prentsa independientearen alde!

Agurtzane Alkorta

Atxegalde

Ondo dago, ez nioke ezer erantsiko, eta kendu ere ez. Normalean kafea hartzen, etxean edo tabernan irakurtzen dut. Ez dakit zein atal den gehien gustatzen zaidana eta batzuetan goitik behera irakurtzen dut eta beste batzuetan, gainetik.

Pako Agudo

Santuenea

Gehien gustatzen zaidana herriko gauzei buruz hitz egiten duela da, eta herriko gauzak ezagutzea gogoko dut. Normalean etxean irakurtzen dut, bazkaldu ondoren. Ez nioke ezer erantsiko eta ez nioke ezer kenduko, ondo dago dagoen bezala.

Larraitz Izagirre

Etxealdia

Etxean irakurtzen dut eta ordu erdi edo ordu bete inguru ematen dut. Gustora irakurtzen dut eta gehien gustatzen zaizkidan atalak Kalejiran , oharrak eta inkesta dira. Festak egon badira edo, hori ere beti irakurtzen dut. Ez nioke ezer kenduko ezta jarriko ere.

Lurdes Hueta

Bizkarre

Gehien begiratzen dudana urtebetetzeen orria da. Aldizkaria asko gustatzen zait eta etxean irakurtzen dut. Ez nuke ezer kenduko, egia esan denetik du pixka bat, herriko gauzei buruz informatzen zaitu. Berriketan eta kalejiran dira gehien gustatzen zaizkidan atalak.

Ana Tello

Santuenea

Gainetik begiratze dut, besterik gabe. *Kalejiran* atala da gehien begiratzen dudana. Etxean irakurtzen dut, iritsi eta berehala. Ez nioke ezer jarriko, ezta kenduko ere. Ongi dago dagoen bezala, nik uste dut denetik aipatzen duela.



Zuhaitz Zubeldia

Aginaga

Gehien gustatzen zaidana Kalejiran saila da eta gutxiena Zer Irizten. Hamar minututan irakurtzen dut gehienetan eta kirolari tarte haundiagoa ematea gustatuko litzaidake.

Zein da buruz iritzia irakurtze Zerbait e al zenio ken

Jose Maria Mendiluze

Arratzain

Noaua!k ematen duen informazioa jasotzea gustatzen zait dudarik gabe. Guztia ez dut irakurtzen baina, atal guztiei ematen diet begirada bat. Hala ere auzoetako kronikak irakurtzen ditut gustokoen. Baserritarron protestak gehiagotan azaldu beharko lukete, baina gure errua ere bada, horien berri ez baitugu. Normalean sozietatean irakurtzen dut larunbat eta igande goizetan.

Yolanda Arrieta

Kaleberri

Oso gustora irakurtzen dut eta goitik behera, gainera. Beti aldatu daitezke gauzak, baina denbora gehiago beharko nuke horri erantzuteko. Lasai-lasai nagoenean irakurtzea gustatzen zait. Berriketan atala gustatzen zait eta iritzia ere ondo egoten da, erreportaiak ere bai, urtebetetzeak...dena.

STA

oaua!ri
uzun
Non
duzu?
antsiko
e? Eta
u?

O

STA

Xabier Iraola

Kale Nagusia

Herriko aldizkari bezala oso ongi dago, herriko martxa ezagutzeko. Behar zen gauza bat da. Ez nuke ezer aldatuko eta gehitu ere ez. Edukin aldetik ere oso ondo dago. Kalejiran da gehien gustatzen zaidan atala. Etxean irakurtzen dut eta ale berdina behin baino gehiagotan hartzen dut irakurtzeko.

Bakartxo Segurola

Arrobitxulo

Txutxumutxuak eta, asko gustatzen zaizkit eta Zer Irizten? ere bai. Nekazaritza arloko gauza gehiago sartuko nituzke. Normalean etxean irakurtzen dut eta iristen denean korrika hartzen dut. Dena irakurtzen dut eta ez nuke ezer kenduko.

Patxi Lizaso

Atxegalde

Herrian jende gehienak irakurtzen duen aldizkari bat da, baina hortik aurrera askotan fundamentu gabeko kexa asko ateratzen direla iruditzen zait. Gauza positiboak gehiago atera beharko lirateke jendeari ilusio pixkat emateko. Gehien gustatzen zaidan atala *Kalejiran* da.

Karmele Hevia

Zubieta

Leku polita da herritaron kontuak azaltzeko. Gehien gustatzen zaidan atala iritziarena da eta gero, berriak, jendeak askotan ez du beste auzoen berri eta hori polita izaten da. Momentu libreak ditudanean irakurtzen dut eta ohean edo salan nagoela, normalean.

ARANTX AKADEMIA

- Matematika
- Fisika
- Kimika
- Ingelesa
- Informatika

Maila guztietan

Zorionak Noaua!

Kale Nagusia, 10 behea atzeko aldea

Txokoalde, Tlf; 943 37 16 49

Illunbe

SAGARDOTEGIA

- Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero
- Aukera zabala jakietan

Noaua egunean dastatu herriko sagardoa

Zorionak!

Zumeta Jatetxea



ZUMETA MENUAK (Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburukoen dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)

USURBIL OPTIKA

Zubiaurrenea, 10
Telf eta faxa:
943 37 02 69

Ana Perez Telletxea
. OPTIKA
. OPTOMETRISTA
. AUDIOPRETESISTA
. KONTAKTOLOGA

Hilabete hauetan oferta paregabeak aurkituko dituzu:

- Jubilatuentzako betaurrekoak: 7.500 pta.
- Lente progresiboak: 19.000 pta.
- Monturak prezio erdian
- Eguzkitako betaurrekoak prezio erdian

Noaua!ko bazkideek %10eko beherapena Usurbil Optikan

Zorionak Noaua!

IRRATI TABERNA

Noaua egunean garagardo prexkua aurkituko duzu!

ZORIONAK!

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA
BAXU KOMERTZIALAK

KALE NAGUSIA 4,6,8 *ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8*

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.
KALE NAGUSIAN 4.6.8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2.4.6.8

GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUAK.
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT . ALTURA BEREZIAK.
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN. KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzt.

MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehengo solairua Bigarrengo solairua

Onpo pasa Noaua egunean eta Zorionak guztioi!

Igandetan ganba-ziri mundialak!

SETABU TAILERRAK, S.M.

ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



SOLDADURA

BURDINEZKO ATEAK

BURDIN SAREAK

PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK

Zorionak Noaua!

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67

Horrela egiten dugu

Erredakzio Kontseilua

Noaua! aldizkaria kaleratu baino bi aste lehenago biltzen gara eta **Garikoitz Udabe, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster, Agurtzane Solaberrieta eta Josu Aranberrik** osatzen dugu erredakzio taldea. Iritsi da azken alea, baina hau aztertzen hasi orduko hurrengo alerako gaiak zehaztu behar, hau da marka hau. Josuk gai zerrenda mahai gainean jarri du, eta oraingoan ere ez da aldizkaria betetzeko arazorik izango. *"Zenbat orrialde izango ditu hurrengo aleak? Honek hiru orrialde emango ditu, izerdi patsetan sailak bat..."* Argazkiak eta hitzak ikusten ez badira ere osatu dugu bi astetan zuen eskuetan egongo den aldizkaria. Lanak banatu eta... lanera!

Kazetari taldea

Koadernoa, boligrafoa, telefonoa, grabagailua eta ordenadorea dira gure lan tresna nagusiak. Ahalik eta azkarren elkarrizketa bat egin behar eta hor ibiliko gara herritarren bati, gehiago ez badira, "pelmada" ematen. Batek erreportaia egiteko informazio gehiago behar duela, besteak hitz jario egokirik ez zaiola etortzen, ordenadoreak ez duela bere lana egin nahi... aldizkaria osatzeko izaten da nahikoa lan. Hala ere, kolaborazio modura idatziak bidaltzen dituzuenoi eskerrak eman beharrean gaude, gure bizkar gainetik pisua kentzeaz gain *Noaua!* aldizkaria guztiona izaten laguntzen duzuelako.

Publizista

Behin erreportaiko gaiak erabakita eta kazetariak ere lanean hasita,nik ere nere zereginari eusten diot, publizitateari hain zuzen ere. Aleroko publizitate gehiena aldez aurretik zehaztuta izaten badut ere, askotan hortxe ibiltzen naiz herriko komertzio eta enpresetan publizitate gehiagoren eskean; Santixabelak direla, Gabonak direla, Sagardo Eguneko gehigarria dela edota beste hainbat arrazoi direla. Askotan, agian, aspertzen bazaituet ere, komertzianteak ulertuko duzuen bezala, horixe da nire lana, baita Noaua!ren diru-iturri garrantzitsuena ere. Beraz, eskerrik asko! zuek gabe ez baikenuke Noaua!rik kaleratuko.

Noaua! aldizkaria

Asteburua gerturatu ahala, telefonoaren txirrinarekin bat, dagoeneko ezaguna zaigun ahotsa entzun ohi dugu: "Kaixo, Amagoia naiz...". Hori entzun bezain pronto badakigu martxan jarri behar dugula, auzoari errepasoa eman eta gure kronika idatzi behar baitugu. Ez da gauza erraza auzoari buruz idaztea, beti ez baitago zer kontaturik. Horregatik, askotan gure burutazioetan murgiltzen gara Kalejiran sailеko tartetxo hori bete ahal izateko. Auzotarren laguntza ere izaten dugu, "hau idatzi behar dek, bestea konta ezan..." eta halako eskaerak askotan izaten baitira. Azkenean, gure kronikatxoa eskuartean, Noaua!ren egoitzara gerturatu eta postontzian botatzen dugu. Adio eta hurrengora arte!

Kalejiraneko kronistak

Argazkilariak

Argazki kamara lepotik zintzilik dugula behin baino gehiagotan ikusiko gintuzuen han edo hemen. Artikuluetako eta erreportaietako argazkiak ateratzea da gure lana eta ekitaldia non han egoten gara gero aldizkarian agertuko diren argazkiak ateratzeko asmoz. Hutsegiteak ere eginak gara, baina tira, gure lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen gara. Lo askorik egin gabe batzuetan, karreterik gabe besteetan... ziur argazkietan ateratzea gustokoa ez duzuenon argazkiren bat badugula gure argazki artxiboan. Hala ere, lasai, kotileoko orrialde arroxa atera bitartean salbu zaudete eta guztiok.

Euskara Zuzentzailea

Juan Joxe Furundarena eta **Marijo Maizen** lekukoa hartu nuenetik, ni naiz, **Eneko Harreguy**, ***Noaua!*** aldizkariko euskara zuzentzailea. Kazetariek idatzitakoa aurrean hartu, eta hiztegiak aldamenean lagun hartuta hauen hankasartzeak, nabarmenak batzuetan, zuzentzen saiatzen naiz. *Noaua!*ko egoitzan batzuetan, etxean besteetan testuak errepasatu eta aldizkaria ahalik eta euskara txukunenean kaleratu dadin inor baino lehenago irakurtzen dut nik Noaua!. Hori guztia kazetariek testuak garaiz pasatzen dizkidatenean, noski, batzuetan azken orduan idatzitakoak "filtrorik" gabe joaten baitira inprentara.

Maketatzaileak

Aldizkarirako testuak idaztea eta argazkiak ateratzea, ordea, ez da nahikoa. Hauek zuengana txukun iristeko aldizkaria maketatu beharra dago. Argazkiak ordenadorera pasa, eskaneatu alegia, ***Noaua!*** eskuetan duzuenok gustora irakur dezazuen testuak eta argazkiak ahalik eta hobekien uztartu, azken errepasoa eman eta... astearteetan, lana leporaino iristean atzeratzen ez badugu behintzat, aldizkaria Antza inprimategira eramaten dugu CD batean. *"Beste ale bat gehiago"* diogu gure artean, ezer arrarorik gertatzen ez bada behintzat bukatu da kazetari-argazkilari-maketatzaileen bi astetako lana.

Inprenta



Iritsi da ***Noaua!***, bazen garaia! Asteartean goizeko bederatzietarako ekarriko zutela eta, bost ordu beranduago dator gaur. Izan ere, guk egiten dugu aldizkaria ateratzeko azken lana. Antza inprimategian CDan datorren aldizkaria paperera pasatzen dugu, alegia. Gure ordenadorean beharrezkoa dena iritsi den begiratu ondoren, aldizkaria filmatzera bidali eta aldizkaria inprimatzeko ezinbestekoak diren fotolitoak egiten ditugu. Makinatzar batean guztia papelera pasa, grapatu eta listo, bi egunen buruan aldikaria Usurbila eramateko prest dago. Furgoneta Mikelek edo Egoitzek hartu eta aide, abiada bizian dagokion lekura.

Banatzaileak

Herriko txoko guztiak ezagutzen ditugu dagoeneko, guk uzten baitugu aldizkaria zuen buzoietan. Renault 5 gorri bat ziztu bizian pasatzen edo nonbait geldituta ikusten baduzue ziur gutako norbait doala barruan, **Mertxe Gimenez edo Xabier Kamino**. Erosketarako erabiltzen den gurdia ere lagun haundia dugu ja, aldizkariak bertan sartu eta alde batera eta bestera zuen buzoietan ***Noaua!*** aldizkaria sartu nahian ibiltzen gara, zuek atea irekitzen diguzuenean noski! Hala ere, banaketa taldea ez dugu guk bakarrik osatzen, kanpora bidali behar diren aldizkariak posta kutxara eramateaz **Txelo Vidal eta Iker Muguruza** arduratzen baitira.

Honelaxe iristen da ***Noaua!*** aldizkaria herriko txoko guztietara. Hemendik aurrerakoa zuen lana da, etxean, tabernan edo dendan herriko gertakizunen berri jakiteko aukera zuen eskura jartzen baitugu hamabostean behin. ***Noaua!*** guztiona izan dadin nahi dugu, eta gairen bat proposatu edo idatziren bat sartu nahi baduzue ***Noaua!*** Kultur Elkarteak Bordaberri 3n (lehengo Zaharren Egoitza) duen egoitzara gerturatu zaitezkete. Badakizue, alea ostiralean banatzen bada ere, guk asteartean eramaten dugu inprentara. 100 ale hauetan hankasartze bat baino gehiago egin dugula badakigu, baina tira, ea aurrerantzean gero eta gutxiago diren!

Amagoia Mujika: "Aldizkariaren modura, elkartea ere herriko erreferentzia garrantzitsu izatea lortu behar dugu"

Halako hitz potolorik? Kultur dinamizatzailea. Baina zein da benetan honek egiten duen lana? Garai batean Inaxio Usarralderen izena agertzen zen hitz potolo honen goialdean. Duela ia urtebete, ordea, Amagoia Mujikarena azaltzen zaigu. Ea, bada, zer kontatzen digun Amagoiak.

Dinamizatzailearen postua duela bi urte inguru sortu zen *Noaua!*n. Zein beharrei erantzuteko sortu zen?

Noaua! hamaboskaria sortzean, Kultur Elkarte bat osatzea izan zen lehenengo pausua, aldizkariak euskarri legal bat behar baitzuen. Hasiera hartan elkartearen zeregin nagusia eta ia bakarra aldizkaria argitaratzea zen. Behin aldizkaria nahiko finkatuta zegoenean, ***Noaua!***k, Kultur Elkarte gisa, bestelako lanak egin zitzakeela ikusi zuen eta horretarako kultur dinamizatzaile bat kontratatzea erabaki zuen.

Eta zeintzuk dira bestelako lan horiek?

Orokorrean herriko kultur mugimenduan parte hartu eta hau dinamizatzea. Hori modu askotara egin daiteke; Liburuak argitaratuz, hortxe dago Zubietako liburua, edota herriko beste taldeekin elkarlanean ekitaldiak antolatuz. Momentu honetan dagoeneko nahiko finkatuta dauden bi egitarau ditugu eskuartean. Batetik udaberrian izan zen "Plis, plas, txalo ta jolas" haurrentzako egitaraua eta bestetik, Tabernarian Elkartearekin eta Udalarekin elkarlanean aurrera daramatzagun ekitaldi ezberdinak: trikibertsoa, kontzertua, ipuin-kontalaria,...gauzatxo batzuk egin ditugu dagoeneko.

Dinamizatzailearekin bilatzen ziren helburuak lortu al dira?

Nire ustez helburu batzuk lortu dira, baina oraindik lan asko dago egiteko. Gainera, herritar askok aldizkaria bakarrik dauka buruan eta, agian, jakin ere ez daki bestelako lanak ere egiten ditugula. Aldizkaria herriko erreferentzia garrantzitsua den moduan, elkartea ere hala izatea lortu behar dugu.

Aldizkaria, argitalpenak, kultur ekitaldiak...nondik ateratzen du *Noaua!*k horrentzat guztiarentzat dirua?

Kasu bakoitzean diru-iturria ezberdina da. Adibidez, Zubietako liburua Zubietako Herri Batzarrarekin elkarlanean eginiko zerbait da, beraz, gastuak ere banatu egin genituen. Udala eta tabernariekin antolatzen ditugunetan ere, guk antolatzaile lana egiten dugu eta dirua beraiek jartzen dute. Hala ere, gure elkarteak bost diru iturri nagusi dauzka: Udala, bazkidetza, publizitatea, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.

Eta nork erabakitzen du diru hori nola erabili?

Urtean behin bazkideen Batzar Orokorra izaten da. Bertan, aurreko urteko balantzea eta datorren urterako egitasmoak aurkezten dira, aurrekontu eta guzti. Gainera, Zuzendaritza Batzordea nortzuk osatuko duten erabakitzen da eta urtean zehar hartu beharreko erabakiak batzorde honek hartzen ditu. Esan beharra dago Batzar Orokorrera bazkide oso gutxi azaltzen dela eta positiboa litzateke bazkide gehiago azaltzea, bazkidea benetan elkarteko "zati" senti dadin.

Baina, honetan guztian zehazki zein da zure lana?

Aurretik aipatutako kultur-ekitaldietan koordinatze lana edo egiten dut. Elkarte ezberdinekin bildu, ekitaldi bat egiteko proposamena egin eta baiezkoa ematen badute, ekitaldia antolatu. Dirulaguntzen kontuan, dirulaguntza horiek eskatu, hau da, Aldundiari eta Jaurlaritzari gure egitasmoak aurkeztu eta baita urteko balantzea ere, egitasmo horiek bete diren edo ez azalduz. Batzar Orokorra, Zuzendaritza Batzordea eta halako bileretan, deialdia egin eta gai zerrenda prestatzen dut.

Orain hamaika burukomin izango duzu azaroaren 4ko festatxoarekin, ezta?

Bai, batez ere azalduko den jende kopurua kalkulatzerakoan. Hala ere, ilusio berezia egiten dit festa honek, hainbestetan telefonoz hitz egin dudan kronistekin lasai egoteko aukera izango dut, adibidez. Beti lanerako deitzen diogu jendeari, hau edo bestea eskatzeko. Pozgarria da behingoz festarako deitzea ere.

AITZAGA HERRIKO TABERNA

Pintxoak, bokatak, plater konbinatuak,... prest ditugu Noaua egunerako!

Euskal presoak etxera!

BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK ETA BOKATA HAUNDIAK NOAUA EGUNEAN!

ZORIONAK!

Aritzeta, 2 Telf: 943 37 10 42

TXIMINIA ALTZARIAK





ALTZARIAK AUKERAN

1.OOO metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Elexpe

Estetika zentroa

Tatuaiak
Betileen trukaketa eta permanentea
Estetika
Solariuma

ileapaindegia

Monalurra 2
20170 USURBIL
943 37 04 62

Zorionak Noaua!

MARGOAK- PAPERAK

FERNANDO PINTURAK

ENPAPELAKETAK ETA PINTURAK OROKORREAN

Kale Nagusia, 1
Tlf: 36 60 19- 36 34 60

Zubiaurrenea, 10
Tel: 943 37 18 07 - Faxa: 943 37 63 41

GRUPO GENERALI

ESTRELLA ASEGURUAK

Markel Olaizola
Aseguru Agentea/ Zbk. 200009

Mota guztietako aseguruak zure zerbitzurako

BGAE (Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erskundea)

Zure (Gure) etorkizun ekonomikoa ziurtatuko digun produktoa da oraingoan sartu duguna

Gurean badira egi

Halaxe da. Gure etxe haundi honetan bada beti zer egitekorik, armairuak txukundu, bazkaria egin, loreak ureztatu,...eta, zorionez, bada nork egina ere. Hor aritzen da jende mordoa lanean ixil-ixil, xume-xume eta izkutuan, inork gutxik jakin gabe. Iritsi da, ba, hauen berri emateko garaia. Jakin dezala herriak nork mantentzen duen txukun gure egoitza, nork apaintzen duen gure aldizkaria, nork eramaten dituen etxeko kontuak, nork antolatzen dituen gure armairuak, nork ematen digun jaten gure bilera luze horien ostean...

Maketatzaileak

Gure aldizkariak, hasi zenetik, jantzi gero eta dotoreagoak izan ditu. Hasiera hartan **Susana Martinek** lan txukuna egin zuen, berak erabaki baitzuen gure aldizkariaren itxura. Gainera, Susanari begira orduak eta orduak emanez guk ere asko ikasi genuen. Ondoren, esku askotatik pasa da gure aldizkaria. Artista ugari izan dugu, egutegiak, urtekariko azala, kartelak, postalak... hamaika lan eman diegu herriko disenatzaileei: **Olatz Goenaga, Mertxe Gonzalez, Zaloa Arnaiz, Ibon Beristain, Aitziber Elortza...**

Mantenimendua

Ezagutzen al duzue gure egoitza berria? Hala ez bada merezi du ezagutzea. Askotan, gehiegitan agian, ez dugu oso txukun izaten, bateko paperak eta besteko zigarrokinak direla medio. Hala eta guztiz ere, ezagutzen duen orok egoitza ederra dela pentsatzen du, hala baita. Lekua soberan eta baita argitasuna ere. Honetan guztian, herriko "txapuzero" askok badu zeresanik. Egoitza zaharretik berrira aldatu ginenean, bazen lanik: dokumentazio guztia ekarri, aprobetxatzeko moduan zeuden altzariak lekuz aldatu, lokal berria pintatu...badakizue, etxez aldatzeak berarekin dakartzan lan neketsu horiek guztiak. Orduan esku asko izan genituen laguntzeko, izenen zerrenda ematea luze joan daiteke, baina izan zirenak badakite benetan eskertzen diegula egin zuten lana.

Orain, berriz, **Iñaki Salsamendi** arduratzen da lokala txukun mantentzeaz: "Iñaki, eta hemen apaltxo bat jarriko bagenu?" eta Iñaki, mailua eta iltzeak eskuan, beti lanerako prest. Gainera, gure egoitzako landareak "goxatzeaz" ere bera arduratzen da.

Honez gain, herrian eskuzabal asko dago. aldizkaritegi ederra, mahai dotorea, ordenagailu bat...ez gaude kexatzeko moduan.

Dokumentazioa eta argazki artxiboa

Gauza garrantzitsua da dokumentazioa eta artxiboa txukun-txukun mantentzea, kazetariei, daturen bat bilatzeko orduan, oso lagungarri baitzaie informazio guztia txukun sailkatuta izatea. Alor honetan lan garrantzitsua egin dute **Garikoitz Udabe, Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalezek.** Eta nola ez? ez ditugu ahaztu nahi lan paregabea egin duten bi artista: **Leire Unanue eta Leire Mujika**. Ikusi besterik ez dago gure argazki artxiboa!

Zure kirol arropa eta material guztia!
Zorionak!
ZUBELDIA
DEPORTES
ESPORT
KIROLAK
Kale Nagusia, 10 Telf; 943 36 60 50

PORTULARRUME ITURGINDEGIA
Bainuko altzarietan aukera zabala!
Kale Nagusia, 2-2-2D
Telf; Denda 943 36 46 37
Etxea 943 36 52 99

teko hamaika lan!

Bazkidetza

Gure familia hau haundituz joan da sortu ginenetik. Gaur egun bostehun bazkidetik gora ditu ***Noaua!*** Kultur Elkarteak eta hau ez da kasualitate hutsa izan. Kopuru honen atzean jende askoren lana dago: 96ko Sagardo Egunean, oraindik inork gutxik proiektu honetan sinesten zuenean, bazkideak "harrapatzen" aritu zen taldetxoa, ondoren **Arantxa Usarralde**, **Aintzane Aizpurua** orain eta ahoz aho bazkideak erakarri dituen jende hori guztia.

Administrazioa

Elkarteko diru-kontuak egunean eramatea oso gauza garrantzitsua da, dirurik gabe ezer gutxi egin baitaiteke. Haseratik **Aitor Pikabea** izan dugu administrari lanetan eta duela gutxi **Aintzane Aizpuruak** hartu zuen lekukoa. Hala ere, berandu baino lehen beste norbaiten izena emango dizuguelakoan gaude. Hala bedi!

Bitartean, milesker gure etxeko diruzainei, ez da lan erraza eta!

Informatika teknikariak

Gure burukomin latzenak sendatzen dituztenak ere ez ditugu ahaztu nahi. Bateko sarean jarri behar direla ordenagailuak, besteko traste berriarekin ezin asmatu gabiltzala, **Oskar Angulo, Pili Lizaso eta Xabier Arregi** beti izan dira laguntzeko prest. Euren bizitza lanpetuetan beti izan dute txokorik guri laguntzeko eta, bide batez, zedozer erakusteko, esan beharra baitago traste berri hauekin beti ez garela oso ondo moldatzen. Eta ezin ahaztu Karlos Aizpurua ere, bera izan baitzen gure web orria internet izeneko sare amaitezin horretan zabaldu zuena.

Zuzendaritza Batzordea

Hauxe da Noaua!ren aita, edo ama, bakoitzak nahiago duen bezala. Hilean behin bildu eta elkarteko erabaki garrantzitsuenak batzorde honen esku izaten dira. Berak erabakitzen du gure elkarteak zein norabide jarraitu behar duen, zein egitasmori eutsi behar dion. Momentuan elkarteak dituen gabezi edo hutsuneak konpontzeko bideak ere batzorde honetan erabakitzen dira. Haseratik hona batzorde honek kide ezberdinak izan ditu, batzuk utzi eta beste batzuk lekukoa hartu baitute. Momentu honetan honako hauek osatzen dute Zuzendaritza Batzordea: **Andoni Sagarna (lehendakaria), Amagoia Mujika, Idoia Agirre, Pili Gimeno, Iñaki Salsamendi, Josu Aranberri, Saioa Fernandez, Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Agurtzane Solaberrieta, Aintzane Aizpurua, Jakoba Errekondo eta Inaxio Usarralde.**

Guztioi, milesker

Jakin badakigu garen guztiak ez gaudela orrialde hauetan. Gainera, izen guztiak jartzen hasita ere, ziur baten bat ahaztuko zitzaigula. Milesker gure bilera luzeak bazkari ederrekin goxatu dituzuenei, milesker gure egoitzara hau edo beste kontatzera etorri zaretenoi, milesker kajoiaren txoko horretan gordeta zenituzten argazkiak ekarri dizkiguzuenoi,...

SOLARIUM
DEPILAZIOA
Biker
ZORIONAK!
Etorri aurretik eska ezazu ordua
ILEAPAINDEGIA
Kale Nagusia, 2 - Telf; 943 37 28 44

TRAGOXKA JATETXEA
✕ Bazkariak
✕ Afariak
ZORIONAK!
Santuenea, 23
Telf; 943 36 27 34

Txiriboga Taberna

Noaua Egunean ere
presoak etxera!

Pintxoak, bokatak
plater konbinatuak...

Irazu kalea, 3 -Telf: 943 37 00 13

USURBILGO UDAL KIROL
PATRONATUAk beste ehun aletan
horrela jarraitzea opa dizue!



TEL.: 943 37 24 98 FAX: 943 37 14 93

EAJ
PNV

Guk BAI jarraitzen
dugu gure bidea!

URDAIRA

SAGARDOTEGIA

Noaua egunean dastatu herriko sagardoa

Ondo ibili!

Aginaga, Telf; 943 37 26 91

IRVIN SAGARDOTEGIA

✓ Txox garaian eguerditan irekita eta igandetan itxita

Noaua egunean herriko sagardoa dastagai

Ondo ibili!

Zubieta Telf; 943 36 12 29

Noaua egunean herriko sagardoa dastagai

Zorionak Noaua!





✘ Urte guztian zehar zabalik

✘ Igande gauetan eta

TXOKOALDE

Iñaki Labaka

Noaua! aldizkarian Txokoaldeko kronista izateko proposamena egin zidatenean zalantzan ibili nintzen. Oso konbentzituta ez nengoen, baina norbaiten beharra zegoenez hastea erabaki nuen. Lehenengo aleetan nire burua ***Noaua!***n agertzeak lotsa ez, baina "zera" bat ematen zidan. Orain, berriz, ez zait horrelakorik gertatzen.

Zenbait garaitan Txokoaldeko kronika idaztea ez da lan samurra izaten. Haseran zer jarria izaten nuen, baina gero aurrez esandakoa ez errepikatzeko nahikoa ere bai. Txokoalden ez da gertakizun askorik izaten, eta horrez gain berri batzuk jarri edo ez zalantzak izaten ditut baten bat haserretuko den beldurrez. Askotan nire buruari zera galdetu izan diot: "orain zer jarri behar dut?". Hala ere, arazo hau auzo guztietako kronistei gertatzen zaigula uste dut.

Lehenengo zer jarri pentsatu eta gaia erabaki ondoren nahikoa erraz idazten dut. Gero, ordea, bueltak ematen dizkiot ea ondo idatzi dudan ikusteko, hiztegian begiratu...

Orain lehen baino lasaiago ibiltzen naiz. Izan ere, hasera batean ni nintzen Txokoaldeko kronista bakarra eta konturatzerako berriz kronika idatzi beharra izaten nuen. Gero, ordea beste hiru kronista berri sartu ziren eta azken bi urte hauetan bi hilabetetik behin idazten dut. Hala ere nahi baino azkarrago pasatzen dira, bai, bi hilabete horiek. "Denbora baterako bakea badut" pentsatzen dut nirekiko, baina, keba, laster pasatzen dira bi hilabeteak.

Hala ere, gustora nabil lan honetan, eta jendeak nik jarritakoa irakurtzen duela uste dut. Auzoan bai behintzat, batzuetan niri ez bada ingurukoren bati kronikan azaldutako zerbaiti buruz zerbait komentatzen baitigute.

AGINAGA

Maria Angeles Arruti

Berria naiz lanbide honetan, baina gustora nabil, orain artean bai behintzat. Idazten ez naiz oso iaioa eta formula berezi bat aurkitu dugu hori konpontzeko: nik ahoz kontatzen dizkiet esan nahi ditudanak eta beraiek idazten dute. Eta egia esan oso ondo josten ditu, Amagoiak uste dut, nik esandakoak. Modu honetara gainera kronika egiteak ez dit lan askorik ematen.

Lehen Izaro Aizpuruaren laguntzailea izaten nintzen. Berak gairik ez zuenean niri deitu eta laister antolatzen genituen azaldu beharrekoak. Izan ere, Aginaga aldean bada zer kontatua. Kritika gehiehi egiten ditudala edo beti zerbait eskatzen ari naizela pentsatuko dute batzuk, baina denetik jartzen dudala iruditzen zait; norbait zoriondu egin behar denean zoriondu egiten dut eta zerbait ondo ez dagoela esan behar denean hori esatea gustatzen zait.

